

KOSTUEN EGITURA

Negozio-eredu bat aurrera ateratzeko bere baitan dakartzan kostu guztiei, *KOSTUEN EGITURA* deritzogu. Enpresa bat aurrera eramateak dakartzan kostu guztien definizioa da. Prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dituzte, eta gure enpresak gai izan beharko du gastu horiei aurre egiteko.

- **HASIERAN EGINDAKO INBERTSIOA:**

- Lokala
- Ordengailu eta ekipo informatikoa
- Altzairuak
- Materiala

Ondasun hauek ez ditugu kostu finko bezala kontsideratzen, baizik eta hasierako inbertsio bezala. Izan ere, ezinbestekoak izango dire gure enpresa aurrera eramateko.

- **KOSTU FINKOAK:** Gure negozioaren kostu finkoak, webgunearen hosting-a eta lokalaren alokairua izango litzateke.

- **KOSTU ALDAKORRAK:** Hornitzaileak kostu aldakorren zatirik handiena izango litzateke, haiei, umeentzako papin eta jostailuak erosten dizkiegulako, ondoren guk zerbitzua aurrera eramateko.

Enpresa desberdinekin negoziatuko dugu, hauek ondasunak hornituko dizkigute baldintza onenetan eta ondoren guk ondasun horiek salduko ditugu.

- **HEDADURA EKONOMIKOAK:** Gure kasuan ez ditugu hedadura ekonomikorik, hau da, guk ez ditugunez jostailuak ekoizten ezin ditugu baliabide berdinak erabili produktu bat baino gehiago egiteko.

